



FRANTZIAKO ESTATUA ETA ESKUALDETAKO HIZKUNTZAK: 1990-2010

Jean-Baptiste Coyos

IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea- Baiona
Helbide elektronikoa: jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr

1. SARRERA

Artikulu honetan Frantziako estatuak eskualdetako hizkuntzekin garai zehatz batean izan dituen erlazioak aztertu nahi ditugu, erran nahi baita 1990tik 2010era, hots azken hogeitun urteetan. Alor honetan hartu dituen neurri nagusiak azalduko ditugu, erabili dituen baliabideak, legezko alorrean izan diren bilakaerak, era orokorrean estatu horren hizkuntzen aldeko edo aurkako politika.

Noski ibilbide hau aski laburra izanen da nahitaez, xehetasunetan ez gara sartuko. Helburua da hogeitun urte hauetako bilakaera agertaraztea.

Eskualdetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak (1992) eskualdetako edo eremu urriko hizkuntzak hola definitzen zituen: “Estatu bateko lurraldean bertako biztanleek, Estatuko biztanleriaren barruan gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten dituztenak; [...] eskualdetako edo eremu urriko hizkuntzen barruan ez dira sartuko estatuko hizkuntza ofizialaren dialektoak, ez etorkinen hizkuntzak” (*Euskaltzaindia, Hizkuntza-zuzenbidea: 92*)¹.

Definizio hori kontuan hartuz jakin behar da Frantzian eskualdetako hizkuntzak asko direla, europar lurraldean berean guti baldin badira ere. Lurralde honetan hizkuntza hauek baditugu: alsaziera, bretoiera, franko-

provenzera, euskara, katalana, korsikera, oil hizkuntzak, okzitaniera. Halere, kolonizazioaren ondorioz, frantses estatuak kontinente denetan lurralde kopuru handia kudeatzen du oraino. 1999an Hezkuntza nazionala, Ikerketa eta Teknologiararen ministroak eta Kultura eta Komunikazioaren ministroak galdetua Bernard Cerquiglini irakasleak oihartzun handia izan duen *Les langues de France* txostenean 75 hizkuntzak zerrendatu zituen².

Noski aurkezpen honetan leku zabala emanen diogu hizkuntza-legeriari, baina ere ideologia ofizialari, azken honek lehena baldintzatzen baitu.

Ordena kronologikoari jarraituko zaio, hau baita errazena garai bateko ekitaldiak aurkezteko, bereziki legeriaren kasuan legezko testuak emendatzen direlako azkena aitzinazkenari zerbait gehitzen edo kentzen diolarik, ordezkatzeko ez badu. Txosten ofizialen kasuan hautaketa bat eginen dugu, hautaketa era batez subjektiboa, gure ustez oihartzun edo eragin handia izan dutenak azalduz.

2. IDEOLOGIA OFIZIALAREN BILAKAERA – TXOSTEN ETA ADIERAZPEN PUBLIKO BATZUK

2.1. Hizkuntza-ideologia ofizialaz eta iritzi publikoaz

Ideologiak legeria baldintzatzen duela erran dugu, baina beste norabidean ere indarrean den legeriak ideologia eragin dezake. Ausarta baldin bada, adibidez, indarrean den ideologia aldarazi dezake. Oro har ideologia legeria bezain garrantzitsua da, garrantzitsuago behar bada. Alabaina badakigu bozkatuak diren legeak ez direla beti aplikatzen edo partzialki, edo batzuetan batere. Ideologiak aldiz ekinga bideratzen du, kontzienteki ala ez.

Ideologia ideia-sistema gisa ulertuko da eta ondorioz frantses estatuaren hizkuntzei buruzko ideologia estatuak daukan frantsesari eta beste hizkuntzei buruzko sineste, judizio eta aurreiritzi sistema litzateke.

Baina eskualdetako hizkuntzen kasuan nola ateratu ideologia ofiziala, frantses estatuaren ideologia nola agertarazi?

Uste dugu gobernuaren komunikazioaren bidez agertaraz dezakegula eta bai ere bere jardueren bidez. Beraz, ministro-deklarazioetan, gobernamentuak ofizialki galdetu dituen txostenean aurkituko dugu. Ideologia horri maila nazionalean eragin soziala duten presio-multzo ofizialenak gehi diezazkiogun, frantses akademiarena adibidez estatuaren ideologian eragin baitu. Halere, azken hori gutxi gorabehera ofiziala izanik ere ez da estatuarena, baina bere eragina handia da iritzi publikoan eta herriaren ordezkariengan, hautetsiengan.

Ildo horretan, deputatuen eta senatarien ideologia estatuarena ez izanik ere garrantzitsua da ere bai, bereziki gehiengoenak, haiek gobernuaren proposamenei segituz legea egiten baitute. Erran behar

*Lurralde honetan
hizkuntza hauek
baditugu: alsaziera,
bretoiera,
frankoprovenzera,
euskara, katalana,
korsikera, oil hizkuntzak,
okzitaniera.*

Oro har ideologia legeria bezain garrantzitsua da, garrantzitsuago behar bada. Alabaina badakigu bozkatuak diren legeak ez direla beti aplikatzen edo partzialki, edo batzutan batere. Ideologiak aldiz ekintza bideratzen du, kontzienteki ala ez.

da Frantzian eskualdetako hizkuntzen sustengatzearen eta garapenaren alde eta aurka badirela hautetsi horien artean, nahiz eskuinean, nahiz ezkerrean.

Prensa-talde eta komunikazio-sareen ideologia garrantzitsua da ere, hori ere estatuaren ideologia ez bada. Baina horrek iritzi publikoa moldatzen du nagusiki.

Azkenean, frantses hizkuntza-estatuaren ideologia agertarazteko testuetan oinarrituko gira, txosten eta adirazpen ofizialetan.

2.2. Idelogia ofiziala agerian ematea txosten eta adierazpen publiko batzuen bidez

Erran bezala estatuaren ideologiaren bilakaera erakusteko hautaketa bat egin dugu txosten eta adierazpen publikoetan. Ziur dena da orain, 2010ean, eskualdetako hizkuntzei aurka altxatuko den frantses gobernuaren ordezkariarik ez dela, ez publikoki altxatuko denik bederen. Ez da, aldiz, diputatu edo senatari denen kasua. 2008ko maiatzaren 13an adibidez, Senatuan hizkuntza horien aldeko lege berri proiektuaren eztabaidan, senatari batek Diwan, bretoi ikastolen federakuntza “sekta bat” zela erran zuen (Jean-Luc Mélançon, ezkerra)

Batzuetan batasuna eta uniformatasuna berdintzen dira ideologian, nahiz arduradun publiko batzuegan, nahiz iritzi publikoan, baina uniformatasunaren alde eta hizkuntzen sailan frantsesaren alde. “Komunitarismoa” da erabilten duten gaitzespen eta kalifikatzaile nagusia eskualdetako hizkuntzen defendatzaileen aurrean.

Eta ondotik arrazoi ekonomikoak edo teknikoak aurreratzen dituzte eskualdetako hizkuntzak ez laguntzeko, aitzaki gisa. Baina hemen ideologiari mugatzea saiatzen gara. Hona adibide batzuk.

1958ko Errepublikaren konstituzioaren 1. artikulua hau dio: *“Frantzia Errepublika zatiez, laiko, demokratiko eta soziala da. Herritar guztien legeekiko berdintasuna ziurtatzen du, jatorri, arraza ala erlijio berezitasunik gabe. Sineste guztiak errespetatzen ditu (...).”*

1992an batzar konstituziogileak konstituzioaren 2. artikuluari egin zion emendakinak, *“errepublikaren hizkuntza frantsesa da”* hain zuzen, diputatu batzuk kezkatu zituen eta justiziako ministroari (Michel Vauzelle, sozialista) galdetu zioten emendakin hori eskualdetako hizkuntzei kaltegarri ez ote zitzaiekeen. *“Gure eskualdetako kulturen ezberdintasun errespetu politikari ez zaio kalterik izanzen, gure ondare nazionalaren funtsezko elementua baita”* erantzun zuen. Baina *“ez da dudarik errepublikaren hizkuntza ofiziala frantsesa dela, Frantziako estatu-hizkuntza”* gaineratu zuen. Hori argia zen eta geroztik lerro politikoa eta oinarritzen duen ideologia ez dira aldatu. Frantsesa Frantzian mintzatzen diren beste hizkuntzen gain dago, hizkuntzen arteko balio-eskalan eskualdetako hizkuntzak frantsesa baino apalago daude.

Lehen ministroak 1997ko urriaren 29ko misio-gutun batean idazten zuen (Lionel Jospin, sozialista): “*Garaia iragan da, alabaina, estatuak hizkuntza horien [eskualdetako hizkuntzak] irakaskuntzak batasun nazionala mehatxatzen zuela estima dezakelako garaia*” (Poignant, 1998: 3). Misio-gutun horren emaitza Bernard Poignant Kemperreko auzapezaren 1998ko *Langues et cultures régionales* txostena izan zen. Txostenak “hizkuntza horien irakaskuntzaren bilan exhaustibo eta objektiboa eta dispositiboaren bilakaeraz proposamenak” egin behar zituen. Orain estatuaren ideologian batasun nazionalaren mehatxu nozio hori desagertua dela erran dezakegu, ez behar bada diputatu edo beste hautetsi batzuen buruan.

Beste txosten batek, urte berean, oiharzun handiagoa izan zuen, Guy Carcassonne zuzenbide irakaslearena. Carcassonnen *Étude sur la compatibilité entre la Charte européenne des langues régionales ou minoritaires et la Constitution* txostenaren helburua zen, izenburuak erraten duen bezala, aztertzea Eskualdetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna frantses konstituzioarekin bateragarri zenez. Frantziak 1998ko maiatzaren 7ean Gutuna izenpetu zuen eta behar zuen berretsi.

Carcassonnen konklusioa zen Parlamentuak (bi batzarrak) Gutunaren berrespena onar zezakeela, bateragarritasuna bazela baina ondoko interpretazio horren adierazpena gehituz: “*‘talde’ terminoak, erabili den aldi orotetan [Gutunean], pertsona fisikoren gehiketa erran nahi du Frantziaren kasuan eta ez pertsona horietarik osatu litzatekeen entitate berezi bat*”. Beraz, hitz ezberdinetan erranik, hizkuntza-komunitate berezirik ez zen Frantziar, frantsesa salbu. Gutunaren helburua zen, Carcassonnen arabera, hizkuntzen babesa eta hiltzunei “*eskubide preskibaezinak*” ematea.

Testuan zehar, hizkuntza-ideologiari eta ez ezagutza zientifikoari lotu zaizkion beste ikusmolde zenbait agertzen ziren. “*Eskualdetako*” hizkuntza erranmoldea eztabaidagarri zela, hizkuntzak eremu geografiko bati ez baitira zehazki loturik. “*Hizkuntza baten egiazko lokalizazioa ezagutzen duen hiltzunen burmina*” dela baieztatzen zen. Eta eskualde-lokalizazio hori arriskutsua zela zinez berezirik egon behar diren hiru nozioren batasuna aditzera ematen baitzuen, eskualde bat, hizkuntza bat eta herri bat. Noski testuak ez zuen zehazten baina hau da frantses estatuak egiten duena Frantziako lurraldearen, frantsesaren eta frantses herriaren batasuna aldarrikatuz.

Aipatu den Bernard Cerquigliniren 1999ko *Les langues de France* txostenean ere ideologia ofizialaren elementu batzuk agertzen ziren. Cerquiglini, Carcassonne bezala, hizkuntza-lurraldetasun printzipioaren aurka agertzen da, haren “*justifizio zientifikoa maila estatistikokoa baita eta interes gutikoa*”. Nik, aldiz, uste dut irizpide hori biziki garrantzitsua dela, adibidez hizkuntza baten hiltzunen dentsitatea lurralde batean, hizkuntza horren aldeko hizkuntza politika eramateko.

Beste iritzi bat aitzinatzen zuen Cerquiglinik, “*hizkuntza, elementu kulturala, ondare nazioanalaren atala da; korsikera ez da Korsika*

Eta eskualde-lokalizazio hori arriskutsua zela zinez berezirik egon behar diren hiru nozioren batasuna aditzera ematen baitzuen, eskualde bat, hizkuntza bat eta herri bat.

**Konstituzioaren
interpretazio horrek,
irakurketa hertsia horrek,
eskualdetako hizkuntzak
norbanakoaren mailara
batertzen zituen.
Irakurketa horrek
oihartzun handia izan
zuen eta ondorio
garrantzitsu batzuk,
horietarik lehena
Frantziak Gutuna berretsi
ez duelako izan zena.**

eskuldearen jabetza, baina Nazioarena". Noski, frantsesa frantses nazioaren jabetza zen.

Carcassonnen txostenaren ondotik Frantziako lehendakariak (Jacques Chirac, eskuina) Konstituzio Kontseiluri galdetu zion berriz Europako Gutuna onargarria zenetz. Konstituzioaren lehen bi artikulua (1958koa eta 1992ka, ikus gorago) eta Frantsesaren erabilerari buruzko legea baliatuz (1994, ikus beherago), Konstituzio Kontseiluak Frantziak Eskualdetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berretsi ezin zuela erabaki du (1999ko ekainaren 15a). Erakunde horren ustez, gutunak zeuzkan hiru kontzeptu batertzen zituen konstituzioarekin bateragarriak ez zirelaketz. Lehena, hizkuntzen lurraldetasuna berriz ere, errepublikaren batasunaren aurka baitoa (konstituzioaren 1. artikulua). Bigarrena, hiztun multzoen eskubide kolektiboak onargaitzak dira, hiritarren berdintasunagatik (1. artikulua ere). Hirugarrena, eskualdetako hizkuntzen erabilera publikoa ezin onargarria da bizi publikoaren hizkuntza frantsesa baita (2. artikulua).

Laburbilduz, konstituzioaren interpretazio horrek, irakurketa hertsia horrek, eskualdetako hizkuntzak norbanakoaren mailara batertzen zituen. Irakurketa horrek oihartzun handia izan zuen eta ondorio garrantzitsu batzuk, horietarik lehena Frantziak Gutuna berretsi ez duelako izan zena. Ez ditugu hemen errepikatuko (ikus Coyos, *Bat* 70). Halere orainko ideologia ofiziala oinarritu du, nahiz Europako erakundeen hizkuntza gutxituei buruzko idelogiak eragina izan duen ere, beste norabidean, Frantziako eskualdetako hizkuntzen alde.

2009ko martxoan Kultura eta Komunikazioaren ministeritzaren kabineteko buruak Euskal Konfederazioaren lehendakariari igorri zion gutunean hizkuntza-ideologiaren bilakaeraren adibide ona da. Arestian erran dugu batasuna eta uniformatasuna berdintzen direla arduradun publiko batzuegan eta iritzi publikoan. Gutun horretan estatuaren ordezkariak bereizketa argiki egiten du hori idatziz: "*Estatuak, eremu horretan hizkuntza-politika bolontarista eramanez eta legezko tresneria berezia berretsiz, batasuna gauzatu nahi du ez uniformatasunean baina aniztasunean*" (2009/03/09).

Bai, azken hogeitun horietan Frantziak hizkuntza-ideologia ofiziala, estatuarena hain zuzen, aldatu dela erran dezakegu. Halere, aukera denetan, frantsesaren lehentasuna baieztatu da eta hori bi mendez geroz ez da aldatzen.

Aldiz, adibidez, nahiz eta inolako legezko testutan hizkuntzen lurraldetasuna baieztatu ez den, zeharka onartua dela ohar dezakegu. Alabaina Hezkuntzaren Kodeak bere L312-10 artikuluan, 2005ko apirilera aldatu izan dena, dio: "*Eskualdetako hizkuntza eta kultura irakaskuntza eman daiteke eskola-ibilbide osoan zehar, estatuaren eta lurralde-kolektibitateen arteko hitzarmen baten bidez finkatuak diren modalitateen arabera, hizkuntza horiek erabiliak diren eskualdeetan*"³.

Argi da estatuaren hizkuntza-ideologia era baikorren aldatzen dela eskualdetako hizkuntzen mesederako, emeki eta baratxe izanik ere, frantsesaren lehentasuna printzipio nagusia egonik.

3. FRANTZIAKO LEGERIAREN BILAKAERA 20 URTE HAUETAN

Gai hori aldizkari honetan jorratu izan da (Coyos, *Bat 67, Bat 70*)⁴. Halere balio du datu nagusiak oroitaraztea eta azken gorabeherak azaltzea.

Hemen ere berriz bilakaera baikor batzuk izan direla ohartzen gara, nahiz eta eskualdetako hizkuntzak berezko legerik gabe egoten diren. Ohartzen gara maila ideologikoaren hizkuntzen arteko desberdintza legeriaren desorekatasunean gauzatzen dela.

3.1. Data nagusiak

Oroitarazi dugu zein zen 1992an batzar konstituziogileak 1958ko konstituzioaren 2. artikuluari egin zion emendakina: *“errepublikaren hizkuntza frantsesa da”*. Baina diputatu batzuek proposatu zioten emendakinari gehigarri hori ez zuen onartu Batzarrak: *“Frantziako euskaldetako eta lurraldeetako hizkuntzen eta kulturen errespetuan”*.

Ondotik zirkunstantzia ezberdin batzuetan holako emendakin mota aurkeztu izan da Batzar nazionalean edo Senatuan. Ez da sekula onartu.

Konstituzioaren 2. artikulua aplikazio-arauak zehazteko, 1994ean Frantsesaren erabilerari buruzko legea indarrean sartu da (Toubon legea, eskuina). Bere lehen artikulua adierazten du: *“Frantsesa, Konstituzioaren aginduz Errepublikaren hizkuntza dena, Frantziaren nortasuna eta ondarearen oinarriko osagaia da. Horixe da hezkuntzaren, garraioaren, trukeen eta zerbitzu publikoen hizkuntza (...)”*. Legeak frantsesari beharrezkotasuna eta bakar-tasuna ematen dizkio eta, eskualdetako hizkuntzak 21. artikuluan aipatuak baldin badira ere, legeak legezko ezugatarik ez die ematen.

Legezko marko berri horri esker frantsesa gerizatu behar zezaten ingelesaren eragin eta erasoez. Baina geroztik ohartu da erabilia zela bereziki eskualdetako hizkuntzen aldeko aitzinamenduak tratatzeko (bost adibide in Coyos, *Bat 70*: 49-51). Eta ez duela deus egiten ahal edo ez gauza handirik ingelesaren eraginaren, *“inbasio”*-ren aurka.

Hamabost bat urte iragan dira, eskualdetako hizkuntzen aldeko lege proiektu batzuk aurkeztu dira, baina Batzar nazionalera ez dira heldu Legeen batzordeak onartu ez baitzituen, edo laster eztabaidatu eta baztertu.

Halere, 2008an pentsaezina gertatu da. Maiatzean, beste behin, Gobernuaren deklarazio baten ondotik lege proiektu baten beharrezkotasunaz eztabaidatzen ari ziren eta hona non maiatzaren 22an, diputatuek, Lege Batzordeak proposatua eta Gobernuaren oniritziarekin, konstituzioaren 1. artikuluari emendakin hau bozkatu duten: *«Eskualde hizkuntzak*

Azken hogeitau urte horietan Frantziaren hizkuntza-ideologia ofiziala, estatuarena hain zuzen, aldatu dela erran dezakegu. Halere, aukera denetan, frantsesaren lehentasuna baieztatu da eta hori bi mendez geroz ez da aldatzen.

“Eskualde hizkuntzak (Frantziaren) ondarea dira”. Senatuak.

(Frantziaren) ondarea dira». Senatuak eta gero, azken finean, Kongresuaren bi ganberek testua bozkatu behar zuten (Legebiltzarra eta Senatuak elkarrekin). Azkenean ezagutzen dugun emendakina onartu zen eta konstituzioaren 75.1 artikuluan kokatu, lurralde kolektibitateetako atalean.

3.2. Konstituzioaren 75.1 artikuluen emendatzearen ondotik

Zein da edo zein izan daiteke artikulua berri horren eragina, aplikazio praktikoak zein izan daitezke? Adituek, legelariak galdera horiek aztertu dituzte. Carcassonne zuzenbide irakaslearen ustez, artikulua berri horrek ez du Europako Gutunaren berrespena baimentzen eta ondorioz ezertarako emendatu da. Ornamentuzko elementu bat litzateke.

Délégation générale à la langue française et aux langues de France erakundearen 2010ko txostenean errana da argiki artikulua horren balioa “deklaratzailea (legezko baliorik gabe)” dela (2010: 63)⁵.

Beste aditu batzuen bidez esperantza legoke heldu den epaileen jurisprudentzian, kontuan hartuz artikulua berri horrek delako permisibitateari bidea idekiko lezaiokeela. Eta lehen seinaleak (ezkorrak) etorri zaizgu.

2010ko apirilaren 22an Bastiako auzitegi administratiboak (Korsika) Galeriako herriko (Korsika Garaia) deliberazio bat deuseztatu du. 2009an herriko kontseiluak bi bileratik bat korsikeraz eginen zela deliberatu zuen, baina bileren txosten idatziak frantsesez itzuliz. Nahiz eta 2008az geroz eskualdetako hizkuntzak ezagutuak diren, frantsesaren erabilera ez zuela murriztu behar akta administratiboetan argudiatu du auzitegi administratiboak.

2010ko urriaren 28an Nancyko auzitegi administratiboak deliberatu du 75.1 artikulua eskubideak eta libertateak bermatzen ez zituela eta, ondorioz, Hezkuntza nazionalak Alsaziako lizeo batean klase elebidun bat idekitzeko betebeharrak ez zuela, elkarte batek galdetzen zuen bezala auzitegian.

3.3. Lege berezirik ez

Erran dugu beraz 2008ko maiatzean Kultura eta Komunikazioaren ministroak (Christine Albanel, eskuina) eskualdetako hizkuntzen aldeko lege proiektu bat mahaiean ezarri zuela eta hori berrikuntza zen. Lehen aldikoz gobernuak berak eta ez diputatu batek edo diputatu talde batek lege proiektua eztabaidara ekarten zuen. Azkenean proiektua baztertu izan zen eta haren ordez Konstituzioa aldatu.

Baina lege baten beharra ez zen desagertu eta aipatu den Kultura eta Komunikazioaren ministeritzaren kabineteko buruaren gutunean, 2009ko martxoan, “eskualdetako hizkuntzei buruzko lege proiektua (...) aurretik bi batzarrei aurkeztua izan zaie, gaur finkatu ez den data batean” baieztatzen zen oraino.

Azkenean 2010ko martxoaren 29an, Senatuan, lege berri proiektuaz galdetua Kultura eta Komunikazioaren ministro berriak (Frédéric Mitterrand, eskuina) erantzun du “eskualdetako hizkuntzak Frantziako ondare” direla hitzartzen duen konstituzioaren artikulua balizko lege horrek “Nazioaren ondare linguistikoari forma instituzionala” emanen ziola ekarten zuela. Gehitu du ere “oraiko legezko eta arauzko tresnak eskaintzen dituen posibilitateak ez [zirela] beti baliatu”. Beste hitzetan errana, lege berri baten beharrik ez zela. Azken finean gobernuak bere hitza jan zuen.

Baina lege horren foiletoa ez da bukatu. 2010ko azaroan berriz bi diputatuk, bata eskuinekoa, bestea eskerrekoa, lege berri proiektu bat aurkeztu dute. Eztabaidatu izan baino lehen Batzar nazionalaren Legeen batzordearen oztopoa gainditu beharko du eta ezaguna da lege proiektu askok etapa hori ez dutela gainditzen, gobernuak hor geldiarazten baititu.

4. EKINTZAK ETA BALIABIDEAK

Frantsesa eta Frantziako hizkuntzetarako ordezkari itza orokorra

1989an sortua, Kulturaren ministeritzari lotu den erakunde arin horrek, 30 langile baino gutiago dauzka aurrekontu txiki batekin, Frantses hizkuntzetarako ordezkari itza izena zuen. 2001ean Frantsesa eta Frantziako hizkuntzetarako ordezkari itza orokorra (*Délégation générale à la langue française et aux langues de France*) bilakatua da, “estatuak gure herriko aniztasun linguistikoaren onarpena marka dezala” (www.dglf.culture.gouv.fr/). Baina bere jarduera nagusia frantsesaren alde doa.

Urtero, irailaren 15eko, 1994ko Frantsesaren erabilerari buruzko legea aplikatuz, erakundeak frantsesaren erabilerari buruzko txosten bat Parlamentuari eman behar dio. Eskualdetako hizkuntzak 3/4 orrialdetan aipatuak dira.

Euskaldetako hizkuntzen aldeko jarduerak

Hemen ere xehetasunetan sartzeari luze-luzea litzateke, beraz egoera-balantze motz bat baizik ez dut eginen. Estatuaren mailan, hizkuntza-plangintzetan lantzen diren eremuetarik bat bakarrik aski landu izan da nire ustez, hizkuntzen irakaskuntza.

Oro har, Frantziako ikasleen %2k eskualdetako hizkuntza irakaskuntza izan dute 2009-2010 ikasturtean (*Les langues de France*, 2010ko frantsesaren erabilerari buruzko txostena Parlamentuari: 72). Halere, murgiltze eredia gutxien garatu den eredia da irakaskuntza pribatuan izanez. Irakaskuntza publikoaren parekotasuneko elebidun eredia gehiago garatu da baina oztopak ez zaizkio faltatzen ere (Coyos, *Bat* 70: 49-50). Hain zuzen eskualde bakoitza kasu berezi bat da, ondorioz eskualdetako hizkuntzen irakaskuntzaren sintesia egitea ez da batere simple.

Oro har, Frantziako ikasleen %2k eskualdetako hizkuntza irakaskuntza izan dute 2009-2010 ikasturtean.

Frantses estatuaren joera orokorra hizkuntza-plangintzaren jarduerak eskualdeko eta tokiko kolektibitateei uztea da, iraskaskuntzakoak salbu.

Aldiz eskualdeetan eskualdeko hizkuntzen alde lan egiteko sortzen diren egitura publikoetan parte hartzen du, bere ikusmoldea baliaraziz.

Hitz bat eskualdetako hizkuntzazko komunikabide publikoek Frantzia. Ohar garrantzitsuena da eskualdetako hizkuntza hutsezko komunikabideak denak pribatuak direla, hizkuntza horien alde lan egiten duten elkarteek kudeatzen dituztela diru-lagunza publiko batzuei esker, baina bereziki lan militanteari esker. Estatuak ez du seriozki alor hori bere gain hartu. Adibide bat bakarrik, France 3 eskualdetako telebista-kate publikoari buruzko 2008ko txostenean, Ikus-entzunezko Goren Kontseiluak (*Conseil supérieur de l'audiovisuel*) erraten du: "Eskualdetako hizkuntzazko telebista-programek 297 ordu eskaintzen dituzte (...). Bi urtez, eskualdeko emankizun hedapenaren oren kopurua modu zinez inportantez murriztu da (...) 2006tik 2008ra %25eko galtze bat" (2008: 7), jakinez Frantzia metropolitarran 10 bat eskualdeko hizkuntza direla (213 oren 2008an eta 2009an 253)⁶. Euskaraz 2006an 5 oren izan ziren, 2007an 2 oren, bai 2 oren!

Frantses estatuak hizkuntza-plangintzaren beste eremuak ez ditu landu. Corpus plangintza, adibidez, elkartei edo erakunde pribatuei Euskaltzaindiaren kasuan utzi die. Administrazioan eskualdeko hizkuntzen erabilera ez du onartzen, dokumentuen itzulpenean salbu. Ikus horri buruz 2007ko maiatzaren 11an Pirinio Atlantikoetako departamentuko prefetak eta Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakari Ipar Euskal Herriko auzapezei idatzi zieten gutuna⁷.

Hots, frantses estatuaren joera orokorra hizkuntza-plangintzaren jarduerak eskualdeko eta tokiko kolektibitateei uztea da, iraskaskuntzakoak salbu. Aldiz eskualdeetan eskualdeko hizkuntzen alde lan egiteko sortzen diren egitura publikoetan parte hartzen du, bere ikusmoldea baliaraziz. Hau da Euskararen Erakunde Publikoaren kasua Ipar Euskal Herrian.

Noski frantsesaren aldeko politika eta plangintza beretzat atxikitzen ditu. Eleaniztasunaren alde agertzen baldin bada nazioarteko erakundeetan frantsesa sustatzeko eredu eta ez Frantzian mintzatu diren hizkuntzen erabilera garatzeko. Politika hori *francophonie* delakoaren kontzeptuan eta Frantziako ordezkariak nazioarteko instituzioetan eramatean duten *lobbying* lanean ageri da.

Horrez gain, aurreko atalean ikusi dugu hizkuntza-legeria estatuak berak egiten duela. Frantziako eskualdeek hizkuntza-legeria ez dute egiten edo osatzen ahal, Espainiako autonomia batzuek egiten duten bezala.

5. ESTATUAREN POLITIKA IPAR EUSKAL HERRIAN: 1990-2010

Frantziako estatuaren testuinguru ideologikoa, hizkuntza-legeria eta jarduerak nazio-mailan aurkeztu ondotik, so egin dezagun orain nola hori gauzatu den Ipar Euskal Herrian. Gai horrez ere gauza asko idatzi dira eta aldizkari honetan bistan da⁸. Dena hona laburbilduz datu nagusiak kronologiaren arabera.

Halere, hori egin baino lehen, azpimarratu behar da beste Frantziako eskualde denetan bezala hizkuntza-politikaren lehen urratsak, lehen jar-

duerak elkarteek, militanteek, euskaltzaleek egin dituztela. Lehen data 1959 liteke Ikas elkartearen sortzearekin, ikastetxeetan euskararen irakaskuntzaren antolatzea helburuarekin.

1990 - Euskal Kultur Erakundearen eta Euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko sindikata

Gobernu sozialistaren eta Pizkunde euskal elkarten federakuntzaren arteko negoziaketaren ondotik, bi erakunde horiek urte berean sortu dira, lehena 1990ko apirilaren 7an eta bigarrena ekainaren 30ean. Euskal Kultur Erakundea (EKE), izenak erraten duen bezala, euskal kulturaren garapenaz arduratzen zuen, baina ere euskararena. Herrien arteko sindikatak, Ipar Euskal Herriko udalerriak bilduz, ekintzak diruz laguntzen zituen euskalgintzan, hedabideetan, irakaskuntzan.

1994ko Seaskaren eta Hezkuntza nazionalaren arteko hitzarmena

1993an François Mitterand lehendakari sozialista eta Edourd Balladur lehen ministro eskuindarra zirelarik, François Bayrou Hezkuntza nazionalaren ministroak Seaskarekin, Ipar Euskal Herriko ikastolen federakuntza, solasak beregain hartu zituen. 1994ko uztailean akordio bat lortu zuten. Hitzarmenak, ikastolen legeztapena berreisten ez bazuen ere, normalizatorako urrats handi bat egiten zuen hogeita bost urteren buruan. Murgiltze ereduak ez zuen aitortzen, baina Hezkuntza nazionalak ematen zituen diru lagunak ikastolei beste eskolei bezala emanen dizkiotela, irakasleen soladatak ordaintuko dituela irakasle tituluak eskuratu ondoan onartzen zuen. Baina urtero Seaskak negoziatu beharko zuen zenbat lanpostu sortuko diren. Halere lehen aldikoz ikastolak eskolak gisa batez ezagutu ziren.

1996 - Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema

Deszentralizazioaren legea baliatuz, Garapen Kontseiluak (gizarte zibila) eta Hautetsien Kontseiluak batera proposamen ezberdinen bilduma aurkeztu dute 1996an, horien artean euskararen aldeko lehen hizkuntza-politika proposamenak.

2000 - Euskal Herriko Hitzarmen Berezia 2001-2006

Estatuak, Akitaniako eskualdeak eta Pirinio Atlantikoetako departamenduak izenpeturik 2000ko abenduaren 22an, hitzarmen bereziak zeuzkan 10 ataletan lehena "Hizkuntza politika" zen. Nahiz aurrekontu txikiak zeukan, erran dezakegu euskararen aldeko lehen urrats publikoa zela, lehen hizkuntza-politika publikoaren urratsa.

*2004ko uztailaren 9an
Estatuak, Akitaniako
eskualdeak, Pirinio
Atlantikoetako
departamenduak, Herrien
sindikatak eta Hautetsien
Kontseiluak hizkuntza
politikarako egitura
publiko berri bat sortu
dute, Euskararen
Erakunde Publikoa (EEP,
Office Public de la Langue
Basque).*

*Eskualdetako hizkuntzen
geroa tokiko podere
publikoen eta haien alde
lan egiten duten elkarteen
eskuetan egonen da.*

2004 - Euskaren Erakunde Publikoa 2006-2010

2004ko uztailaren 9an Estatuak, Akitaniako eskualdeak, Pirinio Atlanti-koetako departamenduak, Herrien sindikatak eta Hautetsien Kontseiluak hizkuntza politikarako egitura publiko berri bat sortu dute, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP, *Office Public de la Langue Basque*).

Hitzarmen bereziaren ondotik eta lehen aldikoz egitura publiko batek euskararen aldeko politika bere gain hartzen zuen. Sei urte iragan dira, 2006ko abenduan EEPk bere *Hizkuntza politika proiektua* aurkeztu du, egitura azkartu da (3.056.000 euroko aurrekontua 2010ean, 12 langile laster), alor asko jorratu ditu. Horietarik nagusiena euskararen eskola-irakaskuntza izan da, parekotasun-eredu elebidunean eta murgiltze-ereduan haurren kopurua azkarki emendatu da, bereziki lehen hezkuntzan. Euskara teknikarien sare bat sortu du herri elkargo eta hiri batzuetan, soldaten erdia bere gain hartuz. Kolektibitate publikoen eta euskararen elkarte sustatzaile nagusien bilgunea bilakatu da. Hizkuntza politika publiko berri horretan elkarte nagusiak (Euskaltzaindia, Seaska, Ikas pedagogia zerbitzua, Uda Leku, Euskal Irratiak,...) politika berriaren obragileak bilakatu dira, eramaten zituzten jarduerak hizkuntza politika egitasmoan sartu direlarik lankidetzeta-hitzarmenen bitartez.

EEPren hizkuntza politika proiektuaren helburua “hiztun osoa” da (*“Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun”*). Argi da “hiztun oso”aren nozioa ideal bat dela Ipar Euskal Herriko kasuan, gauzatuko den errealitatea baino, euskararen gaur egungo egoera kontuan hartzen baldin badugu. Hiztun oso izateak inplikatu luke euskara bizi publikoko alor denetan, baita ere bizi pribatukoetan denetan sar ledila. Horretarako euskarak oraingoz frantsesak dauzkan erabilera-eremuak eta funtzioak irabazi beharko lituzke, edo bederen harekin partekatu beharko lituzke. Orduan bai, hori lortu eta, euskara alor denetara egokituko den neurrian, euskaraz mintzatuko direnak euskaldun osoak izanen dira.

Bigarren EEPren lanaren ahulezia handia da euskararen irakaskuntza bultzatu duela baina erabilera zinez gutxi. Hau da 2010eko maiatzeko frantses estatuko lau ikuskari orokorrek erran dutena Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) ebaluazio txostenean: euskararen transmisioan eragiteaz gain, EEPk hizkuntzaren erabilpena sustatu beharko duela eta ez gazteengan bakarrik. *“Irakaskuntzaren bidezko transmisioak bere mugak topatzen ditu eta ez du berak hizkuntza baten geroa bermatuko”* (21. or.) Ikuskariek *“irakaskuntzatik at segur aski erabilpenaren finkotasuna desafio nagusiena”* dela esaten dute (7. or.). Bistan da, hau da nire ustez hizkuntza-politika baten helburu nagusiena, hizkuntza-komunitate batean hizkuntza baten bizitasun objektiboaren irizpide lehena horren erabilera baita.

6. AZKEN HITZA

Orain arte bezala, eskualdetako hizkuntzen geroa tokiko podere publikoen eta haien alde lan egiten duten elkarten eskuetan egonen da.

Frantziako estatuak, urrats txiki batzuk eginik ere hizkuntza horien aldeko jardueretan bereziki irakaskuntzan, frantsesaren lehentasuna begiratzen eta babesten du. Legezko onarpena eskualdetako hizkuntzei ez die eman nahi; konstituzioaren 75.1 artikulua berriak eskubide berririk ez die ematen hitzunei.■

BIBLIOGRAFIA

- Baxok, Erramun (2006). Eremu urriko hizkuntzak Europa Batuan, *Euskerara*, 51. 2, Euskaltzaindia, Bilbo: 919-968.
- Baxok, Erramun (2008). Hizkuntza antolaketaren bideetan, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 67, Soziolinguistika Klusterra, Andoain: 67-77.
- Carcassonne, Guy (1998). *Étude sur la compatibilité entre la Charte européenne des langues régionales ou minoritaires et la Constitution*, rapport au Premier ministre, www.ladocumentationfrancaise.fr/rapports.../984001697.
- Cerquiglini, Bernard (1999). *Les langues de France*, http://www.dglf.culture.gouv.fr/lang-reg/rapport_cerquiglini/langues-france.html.
- Conseil supérieur de l'audiovisuel, 2008, *Bilan de la société France 3*, http://www.csa.fr/upload/publication/France3_2008.pdf.
- Coyos, Jean-Baptiste (2008). Hizkuntza-politika Ipar Euskal Herrian: nondik nora? Ibilbidearen azterketa, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 67, Soziolinguistika Klusterra, Andoain: 79-102.
- Coyos, Jean-Baptiste (2009). Euskara eta legeria Ipar Euskal Herrian: gizarte elebidun baterantz Aukerak eta Mugak, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 70, Soziolinguistika Klusterra, Andoain: 41-55.
- Délégation générale à la langue française et aux langues de France, 2010, *Rapport au Parlement sur l'emploi de la langue française*, www.dglf.culture.gouv.fr/rapport/2010/Rapport_Parlemen_10.pdf.
- Europako Kontseilua (1992). Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, euskarazko bertsioa in Euskaltzaindia, 2007, *Hizkuntza-zuzenbidea*: 91-107.
- Euskaltzaindia (2007). *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz*, Jagon bilduma 5, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Euskararen Erakunde Publikoa, 2006ko abendua, *Hizkuntza politika proiektua "Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun"*, www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents_OPLB/Hizkuntza_Politika_Proiektua/2006_eep_oplb_hizkuntza_politika_proiektua.pdf.
- , 2010ko maiatza, *Rapport d'évaluation de l'Office Public de la Langue Basque (OPLB - EEP)*, www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/OPLB_rapport_evaluation_defin._juillet_2010.pdf.

Frantses gobernua. Loi n° 94-665 du 4 août 1994 relative à l'emploi de la langue française [Frantsesaren erabilerari buruzko legea], <http://www.culture.gouv.fr/culture/dglf/lois/loi-fr.htm>.

Frantses konstituzioa. 1958-2008, <http://www.assemblee-nationale.fr/connaissance/constitution.asp#114>.

Poignant, Bernard (1998). *Langues et cultures régionales*, Rapport à Monsieur Lionel Jospin - Premier Ministre, www.lengadoc.org/ficdoc/rapport_poignant.pdf.

OHARRAK

1. Hemen "eskualdetako hizkuntza" erranmoldea erabiliko dugu bakarrik. Frantziako eskualdetako hizkuntzak kasik denak eremu urriko hizkuntzak dira lurraldean gutxiengo batek erabiltzen baitu, Frantzia metropolitarran bederen.

2. Ozeanian, Kaledonia Berria, adibidez, 28 hizkuntza kanak zerrendatu zituen Cerquiglinik eta Polinesian 9 hizkuntza desberdin, Hegoamerikan Guiana Frantsesean 6 amerindiar hizkuntza, frantses oinarri lexikalekiko 4 kreolera, etab.

3. Hezkuntzaren Kodea hezkuntzaren alorrean indarrean diren lege-testuak denak biltzen ditu.

4. Ikus ere bai E. Baxoken Eremu urriko hizkuntzak Europa Batuan artikulua *Eusker*a aldizkarian.

5. "(...) *le caractère déclaratif (sans portée juridique) dudit article*" (2010 : 63).

6. Beste ikus-entzunezko sozietate publiko batek, Réseau France Outremer, kroelarak eta beste itsasoz gairik hizkuntzak bere gain hartzen ditu emankizun oren kopuru handiagoarekin.

7. "Bizitza publikoan euskararen erabilpenari arau eta legezko esparruari dagokionez, argitu nahi dugu euskarara erabil daitekeela frantsesaren parean, dokumentu, zigilu eta komunikazio euskarri ofizial ezberdinetan, balio juridikoa frantsesezko bertsiok bakarrik dutelarik. (...) Sustapen lan hori, euskararen behin behineko erabilpen batentzat edo elebitasun osora heltzeko helburuarekin eraman daiteke, gisa guztiz nahitaezkoa delarik frantsesezko idazketa oso baten egitea".

8. Ikus Baxok, *Bat 67* eta Coyos, *Bat 67*, *Bat 70*.